



## DEKRETUA

Lurrazaleko Aparkaldi Mugatuaren Zerbitzua arautzen duen Ordenantzan ezarrita dago ezen, araututako eremuan helbideratuta dauden ibilgailuen jabeek eta bertako merkataritza-jarduerei atxikita daudenenek txartela eska dezaketela, aparkatzen dutenean ordu-txartelik jarri beharrik ez izateko, eta, hartara, gehieneko aparkaldiaren mugatik salbuetsita geratzeko. Urtero berritzen da txartel hori, eta aurreko urtean hura eduki zuen eta baldintzak betetzen dituen titular bakoitzaren etxera bidaltzen.

Txartel horien kudeaketa datu-base baten bitartez egiten da, zein etengabe aldatzen ari baita, eta urtero mozketak bat egiten da bertan, hurrengo urterako txartela automatikoki berrituko zaien titularrak zehazteko, eta etxera bidaltzen zaie horiei txartela. Urte naturalaren bukaera aldera egin ohi da mozketak hori, ahalik eta onuradun gehien sartzen direla ziurtatzeko.

Gertatu ohi da onuradun horiek fidatu egiten direla txartela bidaliko ziela, eta txartel berritua eskura edukitzeaz axolagabetzen, eta Udalak, salatu aurretik, ziur egon nahi du betebeharrak betetzen dituzten onuradun guztiei txartela bidali diela, eta arrazoizko denbora-tarte bat behar da horretarako. Arrazoi horiengatik, 2018ko txartelen indarraldia datorren urteko urtarrilaren 31ra arte luzatzeko aukera baliatuko da aurten.

Lurrazaleko Aparkaldi Mugatuaren Zerbitzua arautzen duen Ordenantzaren 9.a artikuluan jasota dago aukera hori, honela baitio:

*"Bertan inprimatuta ageri den urte naturalerako balioko dute TAO txartelek. Berriak izapidetzean atzerapenik izanez gero, edo antzeko arrazoiren bat egokitzuz gero, indarraldia luzatzerik izango du alkateak."*

Aurreikuspen hori kontuan izanik, hau **xedatu dut**:

**Lehena.**- 2018rako jaulki ziren egoiliar eta merkataritzentzako lurrazaleko aparkaldi mugaturako TAO txartelen indarraldia luzatzea, 2019ko urtarrilaren bukaera arte.

**Bigarrena.**- 2019ko urtarrilaren 2tik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko azaroaren 30ean.

**Alkate lehendakaria,  
Gorka Urtaran Agirre**